

Araba Euskarazera ez noa

Koldo Sagasti

Gaztetan gogo handiz ospatzen nien ikastolen sostengurako urteroko festak. Iniziaziozko errito modukoak ziren hitzordu haiek; eta, euskararen aldeko aldarrikapenaren aitzakian, orgia etilikorako lehenengoetariko aukerak, bide batez. Orduan, esanahi politikoz beteriko performancea zen Errioxako azken mugaraino joan eta jaialdi euskaltzalea antolatzea. Urteak joan urteak etorri, baina, epeldu egin zait ikastolen jaiarekiko grina hori. Garai bateko erreibindikaziozko ospakizun haiek instituzionalizatu diren neurri berean joan zait niri parte hartzeko gogo.

Ikastolen mugimenduari eta, oro har, mugimendu euskaltzaleari onartu behar

zaio, merezi duen neurrian, euskarazko hezkuntza normalizatzeko egindako ahalegina. Izan ere, borroka horren emaitza da gaur egun euskararen ikaskuntza bermatzen duen (bermatu beharko lukeen?) hezkuntza sistema publikoa izatea. Horregatik, hain zuzen ere, eta hezkuntza sare publikoak herritar guztiei euskarazko heziketa eskaintzea erdietsi den garaian, zer zentzu dauka ikastola pribatu-itunpekoen aldeko elkartasun jaialdi batek?

Estatu mailan itunpeko eskolen tasa handiena duen erkidegoa da EAE, ikastetxeen %50; eta ikas-zentro horiek, titulartasun pribatukoak izanagatik, finantziazio publikoak jasotzen dute ia bere osotasunean. Ur-

teotako eskarmentuak, ordea, erakutsi du itunpeko sareko ikastetxeak elite zuri kristau baten ezkutaleku bilakatzen ari direla, eta immigrazioaren fenomenoaren sare publikora zokoratzen duen matrikulazio sistema sustatzen ari dela erakundeetatik.

Gauzak horrela, garai bateko jaialdietara eraman ninduen espiritu militante hark ez nau oraingo honetan biharko Araba Euskarazera erakarriko. Euskal Herria euskalduna izango bada, guztion ondarea izan beharko du euskarak. Gizartearen zati bat baztertzen duen pribatu-itunpeko hezkuntza sistemak ez diezagula elkartasuna eskatu euskaltzaleoi urteroko ospakizun solidarioetan. Euskaltzale honi ez, behintzat. •

Gorputz zoriontsuak

Mirari Martiarena

Aspaldian sukaldaritza saiorik ikusi gabea nintzen telebistan. Lehen tarte gehiago hartzen nuen edo interese gehiagorekin jarraitzen nintzen, baina aitortu behar dut sukaldaritzari buruzko hainbeste saio egoteak nagikeria pixka bat ere ematen didala, nahiz eta sukaldean aritzea ikaragarri maite.

Saioaren bukaera zen eta sukaldaria hori ari zen hizketan goxokiei buruz. Gaur egun gurasoek umeei goxoki eta litxarrerria gehiegi ematen dizkietela zioen: «Kontuz ibili behar da, haurrengan gizentasun arazoak sor baititzake eta haur lodiak ez dira haur zoriontsuak». Haserretu egin nintzen, ezin bainuen sinetsi sukaldari kontsokratu batek horrelako mespretxuzko komenta-

ria egin izana. Haur gizenak ez dira zoriontsuak? Zergatik? Litxarrerriak jaten dituztelako?

Ados litxarrerriak eta gozokiak neurtu egin behar ditugula, bai haurrek eta baita helduok ere. Baina ume bati bere gorputza ez dela polita den bezalakoa esaten badiotzu, une horretatik bertatik ez du bere gorputza eta burua maiteko. Inguruak esango dio ez dagoela ongi den bezalakoa izanda eta une horretatik bertatik hasiko da beste bat izan nahian. Inguruak lodia delako seinatu egingo du, modu batera edo bestera baztertuta izango da eta orduan ez da zoriontsu izango. Jendarteak irakatsi dio ezin duela zoriontsu izan ez delako besteak nahi duten bezalakoa.

Dugunarekin zoriontsu izaten jakin beharko genuke. Ez gara konturatzen ume bati esandakoak, gure intentzio onenarekin izanda ere, nolako arrakala sor dezakeen ume horren garapen pertsonalean. Eta arrakala horiek ixtea ez da erraza izaten. Nire buruari begirata, esan dezaket, 30 urte beteta ere hor jarraitzen dutela, geroz eta arrakala txikiagoak diren arren. Gure Esku Dagoren abestia etorri zait burura; duen esaldi indartsu bat: “jende zoriontsua herri libre batean” eta “herri” hitza “gorputz” hitzarengatik aldatu dut. Gure buruari eta gorputzari jartzen dizkiogun mugak alde batera utzita bizitzen jakiteak gauza ederra behar du. Noizbait agian lortuko dugu gorputz libreetan zoriontsu izatea. •